

UEUren “Tablet Nexus 7, 32 GB” zozketaren oinarriak, 2013ko apirilaren 7an, 23:59etan

1. -Erakunde antolatzailea 1. Udako Euskal Unibertsitateak (hemendik aurrera UEU), egoitza soziala Erribera kalea 14, 1.D 48005 Bilbon duena eta G48218416 CIFa duenak, “Ni ere, UEU” izeneko Zozketa antolatu du (hemendik aurrera “Zozketa”), jarraitzaile komunitatea fidelizatzeko asmoarekin.

2.- Facebook-ekiko deslotzea. Facebook-ek ez du inolako moduan eskaintza hau babestu, bermatu edota kudeatzen, eta ez du berarekin inolako loturarik. Erabiltzailea Facebook-etik guztiz deslotzen da eta guztiz kontzientea da bere informazioa UEUri ematen diola, eta ez Facebook-i. Ematen den informazioa lehiakidearen parte-hartzea kudeatzeko bakarrik erabiliko da eta irabazlea izango balitz, berarekin harremanetan jartzeko.

3.- Zozketan parte hartzeko hasiera 2013ko martxoaren 5a izango da eta 2013ko apirilaren 7an amaituko da 23:59etan.

4. Zozketan parte hartu ahal izango du: UEUren Facebook-eko orri ofizialeko jarraitzaile diren eta Facebook-en erabiltzaile profil errealak duten 18 urte edo gehiagoko pertsona fisiko orok. -Ezingo dute parte hartu: 18 urte baino gutxiago dutenek. Partehartzetik kanpo geratzen den norbaitek irabazten badu Zozketa, saria jasotzeko eskubidea galduko du eta baliozko partehartze baldintzak betetzen dituen ordezkari izendatuen arteko hurrengo pertsonari emango zaio.

5. Sariak – Baldintza orokorrak. Tablet “Nexus 7, 32 GB” oparituko da, zeina zortzi asteetako epea baino lehen irabazleak eman duen helbidera bidaliko zaion.

6.- Zozketaren nondik norakoa:

(<https://www.facebook.com/udakoeuskalunibertsitatea>)

Zozketan parte hartzeko beharrezkoa izango da:

- UEUren Facebook-eko jarraitzaile izatea edo egitea.
- Erabiltzaileek UEUren kanpainako bideoetako bat Facebook-eko beren kontaktuekin banatzea (erabiltzaileen biografian):

- UEUren Facebook-eko orriaren bidez edo
  - UEUren web gunearen barnean dagoen Facebook-eko pluginaren bidez banatuz
- Partehartzaile guztiei zenbaki bat egokituko zaie. Edukia behin baino gehiagotan zabaltzen badu ere, zozketa zenbaki bat emango da erabiltzaile bakoitzeko.
  - Identifikatu ezin diren erabiltzaileei ez zaie zozketa zenbakirik emango.
  - Erabiltzaileen izenak fitxategi batean jasoko dira, zeina UEUk bakarrik izango duen ikusgai.
  - Irabazlea <http://www.random.org> web guneak sortzen duen ausazko zenbaki baten bidez aukeratuko da. Erabiltzaile bakoitzari zenbaki bat egokituko zaio, korrelatiboa izango dena, eskaintza honek sortuko duen kalkulu orriak sortua, erabiltzaile zerrendatik.
  - Zozketa apirilaren 8an egingo da.

7.- Irabazlearen komunikazioa. Kontaktuaren lehen saiakeratik 24 orduko epean ezin badugu lortu irabazlearekin harremanetan jartzerik, edo honek uko egingo balio sariari, irabazle berri bat aukeratuko dugu, eta aurrekoak saria erreklamatzeko eskubidea galduko du. Irabazleak saria komunikatu digun helbidean jasoko du. Erabiltzailea UEUren orriko jarraitzailea ez bada edo bere identifikazioa zalantzazkoa bada, ez dugu irabazletzat hartuko.

8. Erreserba eta mugak. Sarituak berak emandako identifikazio datuetan bere identifikazioaren inguruan erroreren bat egongo balitz, UEU salbuetsita geratzen da. Era berean, sariaren bidalketari dagokionez, posta zerbitzuaren ardura izan daitekeen galera, hondatze, lapurketa edo beste egoeraren aurrean UEUk ez du ardurarik hartzen.

9. UEUk ez du bere baitan erantzunkizunik hartzen zerbitzuen funtzionamenduaren disponibilitate edo jarraikortasunean uneko gabezien kalteagatik, zeinaren bidez eskaintzan partehartzen den. Ez eta erabiltzaileek zerbitzu horien erabilararen gaineko iruzurraren leporatzean ere. Eta bereziki, baina ez eskusiboki, orri desberdinetarako sarbideetarako akats eta partehartze erantzunen bidalketa edo horretarako jarritako telefono bidezko komunikazio

arazoetan ere ez du UEUK erantzunkizunik izango. UEUK beretzat gordetzen du eskaintzan aldaketak egiteko eskubidea helburu egokia lortze bidera arrazoi justua edota oinarri hauetan agertzen den bezala egikaritzeko ezintasunak dauden ezinbesteko arrazoiak badaude. UEUK beretzat gordetzen du eskaintza hau atzeratu edota bere epea luzatzeko eskubidea, bai eta oinarri legal hauek interpretatzeko ahalmena ere. UEUK beretzat gordetzen du eskaintza hau laburtu, luzatu, aldatu edo bertan behera uzteko eskubidea, berau aurrera eramateko ezohiko arrazoiak egongo balira, baldin eta arazoi horiek komunikatzen baditu, partehartzaileei edozein kalte sahiestuz.

UEU egozgarriak ez zaizkion atzerapen, galera edo hondaketaren erantzule ez da izango. UEU ez da erantzule izango sari osoaren edo zati baten gozamina galerazi dezaketen ezinbesteko kasuetan. Era berean, UEU ez da erantzule izango aipatutako kasu hauetan, bai eta sariaren gozaminean gerta daitezkeen ezinbesteko kasuetan. UEU ez da erantzule izango eskaintzan parte hartze den web funtzionamenduaren disponibilitate edo jarraikortasunarekin lotuta dauden kalteengatik, ez eta erabiltzaileek zerbitzu horien erabilararen **ERABILERA** gaineko iruzurraren leporatzean ere. Eta bereziki, baina ez eskusiboki, orri desberdinen sarbide eta Internet bidezko erantzunen bidalketan. UEUK beretzat gordetzen du justifikatutako arrazoiengatik iruzur egin, aldatu edo gauzaeztandatzan duen erabiltzailea eskaintzatik ezabatzeko eskubidea.

10. Datuen babesa. Datuen babeserako 15/1999 Lege Organikoaren baitan. Sariaren onartzeak inplikatzeko du irabazleek baimena ematen diotela UEUri eskaintza honekin lotuta dagoen edozein jardura publiko zein zabalkundean beraien izen eta abizenak erabiltzeko, eta horregatik ez dute sariatz gain, inolako ordainketa edo onurarik jasoko. Honi ezezkoa emateak sariari uko egitea ekarriko du. Erabiltzaileek emandako datuak modu konfidentzian kudeatuko dira, eta izaera pertsonaleko artxibo automatizatu batean gordeko dira, zeinaren titularra eta erantzulea UEU izango den, Bilboko Erribera 14, 1.D egoitza duena, eta Zozketa honen kudeaketa izango duena helburu.

UEUK bermatu egingo du eskaintza honetan jasotzen diren datu pertsonalen 15/1999 Izaera pertsonaleko datuen babeserako Lege Organikoaren konplimendua, modu berezian partehartzaileen datuen informazio, atzipen, zuzenketa, oposizio eta deuseztapen eskubideei dagozkienak. Interesatuak beraien atzipen, zuzenketa, oposizio eta deuseztapen eskubideak erabili ahal izango dituzte [komunikazioa@ueu.org](mailto:komunikazioa@ueu.org) helbide elektronikora eskaera eginez.

Oinarrien onarpena. Eskaintza honetan parte-hartzeak oinarri hauek onartzea suposatzen du, beraz, oinarri hauen ukoak edo zati bati uko egiteak

partehartzailea kanporatzea ekarriko du eta horren ondorioz, UEU partehartzaile horrekin hartutako betebeharraren konplizetik aske geratuko da.